
BINGEN ZUPIRIA, EUSKAL TELEBISTAKO ZUZENDARI HERNANIARRA

Arantzazu Zugasti Arizmendi

Bingen Zupiria nace en Hernani hace 44 años. Su carrera profesional, larga e intensa, se inicia en la televisión vasca, pasa por los entresijos de la política y desemboca en la gestión del medio donde inició su carrera; ocupa, en la actualidad, el cargo de director de Euskal Telebista. Pero, como él dice, es la propia experiencia la que relativiza la manera de ver las cosas: su infancia en Hernani, la decisión de trasladarse a Bilbao a los 18 años, la presencia de su padre, su paso por Lehendakaritza, la relación con sus amigos de siempre, la paternidad... Todo ello hace variar su relación para con su pueblo, para con Hernani; aunque *“son los amigos y los recuerdos de infancia los que mantienen los lazos con tu pueblo”*.

Argizki: ARGIA



*“Herriarekin daukazun lotura
ez du etxeak ematen,
lagunek eta txikitako
oroimenak baizik”*

Elkarrizketa hau prestatzerakoan Googlera jo dut Bingen Zupiriari buruz egon zitekeen informazioa jasotzeko eta 113 aldiz ateratzen da zure izena. Hernaniko plazan jaiotako batentzat nazioarteko sare handiengan hainbestetan ateratzeak zerbait esan nahi al du? Googlen eta interneten jende asko ateratzen da, nire anaiak ere ikusi izan ditut bertan ... Informazioa konpartitzeko eta zabaltzeko aukera berriak ematen ditu internetek eta ez diot garrantzi handirik ematen nire kasuan ateratzen denari. Nik horrela ulertzen dut behintzat...

Hernaniko plazan hasten da zure, edo hobe esanda, zuen historia, Zupiriatarren historia. Bost anai zarete eta aita hil berria; zuk 18 urte zenituela Bilbora joan zinen eta pixkanaka familia osoa han biltzea lortu zenuten. Zergatik Bilbora? Aitak negozio bat zuen Bilbon eta negozio horri eutsi behar zitzaion eta, modu bakarra etxekoak negozio horretan jarraitzea zen. Horregatik joan zen nire anaia Iñigo hara 15 urterekin, eta gero denak joan ginen atzetik. Gero gertatu zen une batean gehiago ginela Bilbon bizi ginenok Hernanin baino eta aitak gure premia izan zuenean, gurekin bizitzera eraman genuen.

Garai hartan Hernanitik atera eta Bilborako salto hori handi samarra izango zen, ezta? Bai, salto handia izan zen. Bi gauza elkartzen ziren gainera; Bilbok baditu hiri bezala hainbat eskaintza, jende asko dago, lagunarteak handiagoak dira, gauza gehiago egin daitezke, unibertsitatea dago, zinemak daude, eta horretan alde handia dago Hernanirekin alderatuta. Hori gauza bat da eta bestea, zuk esan bezala, 18 urterekin joan ginela Bilbora eta urte horietan askatasun pittin bat daukazun toki batera joateak asko markatzen zaitu.

Nola geratu zen Hernaniko lagunarteko harremana? Bilbon lagun berriak egin nituen, baina Hernaniko lagun minenak ez ditut galdu eta haiekin badut oraindik ere harremana. Eta gero ahalegintzen naiz –urtero ez dut lortzen, baina ahal dudanean, etortzen naiz– ikastolako urteroko zitara etortzen. Maiatzean bildu ginen azkenekoz.

Izan ere, zuen belaunaldi hori, Urumea Ikastolako lehenengoetakoa izan zen... Gu gara OHO osorik bukatzen zuen Urumea ikastolako lehenengela.

Oarson kokaturik zegoen ikastola, gela batzuk besterik ez zituen ikastolak, pianoko gela fama-tua ere bertan, lehenengo andereño haiek... Nik beti uste izan dut guri eman ziguten tratua berezia izan zela, andereñoak eta ingurukoak konturatzen zirela gu ginela lehenengo promozioa eta halako begirune berezia izan zuten gurekin. Lehenengo

promozioa ginelako eta zuzendariaren ikasleak ginelako.

Urte haiek gogoratzekoan, zer oroitzapen datozkizu burura? Ba... nik batez ere gogoan daukat klaseko lagunekin bizitutakoa, neska-mutil lagun horien oroitzapena, urte asko pasatzen baikenituen elkarrekin.

Garai haietan, ikastolan ikasi eta ibili ginenen hezkuntza ez zen batere ortodoxoa. Beharbada urte haietan ez ginen gauza horietaz jabetzen, baina pixkanaka deskubrituz joan ginen gurea "beste era bateko" hezkuntza eta ikasteko era zela. Eta Urumea Ikastolako ikasleok badugu oroitzapen bat, ahazten ez duguna: Galarretako jaialdia. Zerorri ere, Galarretako jaialdian hasi zinen musikaren bidea jorratzen... Gure gelatik, oker ez banago, atera ziren bi talde: alde batetik pailazoak, gure gelako hiru lagun artean sortutako taldea (Mikel Urruzola, Luis Angel Ormazabal eta hirugarrena esango nuke Anton Gaztañaga zela) eta musika talde bat. Musika talde horretan geunden Karmele Bilbao, Elena Ortega, Nicolas Zubillaga, Jon Karrera eta ni neu. Gero ere Manu Zubillaga tartean egon zen. Nik gitarra jotzen nuen eta urte batean irakasle prestu bat izan genuen, Benito Lertxundi bera.



Bingen Zupiria eta Miren Etxaniz panderoa eta trikiti-xa jotzen Kilometroak 1981ean, Arrasaten.

Handik urte batzuetara ere trikitixa jotzen aritu zinen; orduan nahiko ahaztuta zegoen musika berpiztu nahian ibili zineten bai zu eta bai Miren Etxaniz. Hori geroago izan zen. Nik 18 bat urte izango nituen eta Mirenek 14-15 urte. Disko bat ere atera genuen...

Eta nola bururatu zitzaizuen trikitixa jotzen hasia? Hori Mirenen, edo hobe esanda, Mirenen gurasoen gauza izan zen. Mirenek pianoa eta soinu handia jotzen zituen eta soinu txikia jotzeko aukera sortu zitzaion. Nik Mirenekin batzuetan kantatu egiten nuen eta bere amarekin behin hizketan ari ginela sortu zen panderoa ikasteko aukera eta berarekin bikotea egitekoa. Gogoratzen dut Azpeitira joan ginela, Iturribide baserrira eta horrela hasi ginen plazaz plaza. Lortu genuen Kepa Junkerarekin eta Tapia eta Leturiarekin jotzea Zarauzko txapelketan, 78-79 urteak izango ziren haiek eta Kepa Junkera orduantxe hasi zen ezaguna izaten.

Filologia ikasketak egin zenituen Bilbon. Zergatik Filologia? Bada, ez nizuke esango zergatik aukeratu nuen karrera hori. Zerbait egin behar zen eta filologia garai hartan kuriozosa iruditu zitzaidan.

Orduan, zuk zure burua ez zenuen kazetari bezala ikusten? Ez, ez, inondik ere ez. Nik nire burua irakasle ikusten nuen. Kazetari izatearena akzidente bat izan zen.

Kontatu nola izan zen "akzidente" hura... Bada, nik Bilbon ezagutu nuen lehenengo pertsonetako bat Pedro Mari Goikoetxea (ETBko kiroltako kazetaria) izan zen. Jai batzuetan ezagutu genuen elkar, lagunak egin ginen eta harrezkero daukagu harremana. Gogoratzen naiz halako batean berak esan zidala telebistan froga batzuk atera zirela eta animatu ninduen aurkeztera. Joan nintzen froga haietara eta horrela sortu zen telebistarena.

Aurkezle jarri zintuzten eta segituan egin zinen ezagun, egun batetik bestera, ezaguna, popularra... Nola bizi zenuen salto hori? Telebistan egin nuen lehenengo lana sukaldaritza programa bat aurkeztea izan zen. Albistegiak eta kirolak kenduta, ETBk egiten zuen lehenengo programa izan zen hura. Aurkezle eta erreportari nintzen eta han hasi nintzen kazetaritza lanetan. Gero ere lehiaketa programa batean aritu nintzen, elkarte gastronomikoen arteko lehiaketa batean -behin Txantxan-gorrikoek ere hartu zuten parte eta Hernanira etorri ginen-. Eta handik informatiboetara, premiazko gauza bat izan zen, norbait behar zuten aurkezteko eta horrela hasi nintzen lan horretan.

Susto handia izan al zen? Ez, atseginez hartu

nuen. Gauza berriak probatu nahi nituen eta oso ondo pasa nuen gainera.

Orduko telebistak ez du zerikusirik gaur egiten denarekin... Ez. Telebistan orokorrean ez, eta ETBn ere ez. Telebista asko aldatu da 84an ni hasi nintzenetik hona, eta Euskal Telebista ere bai. Gaur ETB merkatuan lehian dagoen telebista da, eta garai haietan oso gauza txikia zen.

Garai hartako telebistari buruzko oroitzapenak idealizatu egiten al dituzu? Gu oso gazteak ginen, askatasun handia genuen gauzak egiteko, ikasteko gogoia genuen eta lan egiteko bidea eman ziguten. Egia esan, abentura erromantikoaren tentsaziorik ez daukat, ez, oso gustuko lan bat eman ziguten, soldata ere pagatzen ziguten eta askatasuna genuen gauzak egiteko. En fin, oso gauza polita izan zen.

Telebistako informatiboetatik, Lehendakartzara, Ardanza Lehendakariaren aholkulari gisa. Informazioa barrikadaren beste aldetik ikusteko aukera eman zizuten. Urrats handia eta kazetari bat kokatu edo definitzen duten horietakoa. Nola hartu zenuen erabakia? Ustekabean sortutako gauza izan zen. Lanean nengoen egun batean deitu zidaten Lehendakaritzatik Ardanza Lehendakariak nirekin hitz egin nahi zuela-eta, eta esan zidan laguntzaile baten premia zuela prentsa arlorako eta ni izatea nahi zuela. Beno, hori telebistakoa bezala izan zen, gauza berriak egiteko aukera. Lehendakariak egin zidan planteamenduak konfiantza eman zidan eta ez neukan ezer galtzeko.

Asko ikasi al zenuen? Beharbada inozentzia ere galtzen da horrelako zeregin batekin, ez? Bai, asko ikasten da, baina esan behar dut hor ere suerte handia izan nuela. Lana zen, lan gogorra, lan asko egin behar genuen baina oso giro egokia aurkitu nuen lanerako. Ardanza Lehendakariak konfiantza guztia eman zidan lanerako, Lehendakari-tzan nuen ekipotik laguntza besterik ez nuen jaso ... beno, gertatzen zaizkizu nahi ez dituzun gauzak, egurra ere jasotzen duzu baina egurra hartuz ere asko ikasten da.

Garai haiek ere oso biziak izan ziren, barrutik ezagutu zenituen gobernu hirukoitzaren kontaktak (sozialistekin osatutako gobernu zegoen indarrean), Ajuria Eneako hitzarmenaren "sukaldea" etab. Nola gogoratzen dituzu urte haiek? Oraingoekin alde handiak ikusten al dituzu? Alderik handiena indarkeriarena da. Niri tokatu zitzaizkidan urteak indarkeriaren urteak izan ziren, hildako asko egon zen, kalean istilu asko zegoen eta horrek asko bereizten du orduko denbora eta oraingoa. Bortxa eta biolentzia horrek behartu zituen alderdi politikoak egoera bereziko neurriak

hartzera eta akordioak egitera. Alde handia dago gaurko egoerarekin konparatuta. Hala ere, negoziatu, orain ere negoziatu egiten da: orduan alderdi sozialistarekin egiten ziren batez ere eta hainbat gauzetan aurrera egiteko babes handia izan zuten akordio haiek. Orain seguruenik akordioak erraza-
goak dira, baina erabakiak hartu behar diren tokietan, Legebiltzarrean adibidez, ez dago erabaki asko hartzeko gehiengorik.

Zein izan zen unerik gogorrena? Dudarik gabe, bizi izan nuen unerik larriena Miguel Angel Blacoren hilketa izan zen, eta haren inguruan gertatu ziren gauza guztiak: bahiketa, hilketa, gertatu ziren manifestazioak, handik aurrera sortu zen egoera politikoa... gehien markatu nauen gertakizuna izan zen.

Eta unerik samurrena, politena? Lan arloan gertatu zitzaidan gauzarik politena Guggenheim izan zen, haren sorreran parte hartzea. Eta maila pertsonalean, Lehendakartzan izan nuen giroa.



Argazkia: ARGIA

Arlo profesionalean egindako apustua eta gero, nola antolatu zenuen zure familiako ardura. Garai haietan hiru ume izan zenituen eta badakigu horrek dakarren lana... Familiako giroa mantentzeko modu bakarra dago, eta asko da lagunduko dizun laguna ondoan izatea. Etxean Aintzarenen konprensio guztia izan dut eta haren laguntza eta lan guztia familia aurrera ateratzeko.

Ajuria Eneako etapa itxi eta berriro telebistara bueltatu zara, eta gaur egun, zure lagunak zuzendari ere bazara. Erraza al da lagunak zuzentzea? Nik esango nuke samurragoa egin zaidala telebistako zuzendari lana horri esker. Niretzat abantaila handia izan da ezagutzen nuen jendearekin lanera bueltatzea. Bat zuzendari da eta zuzentzea tokatzen zaio, baina besteengandik jasotzen dudana da lehenagotik ezagutzen nautela eta ez nautela kanpotik etorritako pertsona arrotz bat bezala ikusten. Abantaila bat da. Gainera, lanerako egin ditugun ekipoak etxeokak dira eta horrek ere konfiantza ematen du.

Nola mugitzen da eta zer aukera ditu Euskal Telebistak egungo telebisten ikuspegitik eta gaur egungo merkatuan? Nire ustez, gurearen antzeko telebista batek lortu behar du norbait izatea telebistaren merkatuan, beraz, telebistak lehiakorra izan behar du, saio arrakastatsuak dituen eta behar du ikus-entzuleen onespena. Nik uste dut hori guztia behar beharrezkoa dela, izan ere, telebistaren arloan egongo den konpetentzia gero eta handia izango da eta ez bazara norbait merkatu horretan gauza marginal bat bihurtu zitezke. Hori lortzeko, ETBk bere bi kate ditu, bakoitza bere ezaugarriekin, lan talde ona dugu, nahiz eta fitxaketak egon eta izarrak joan eta etorri ibili. Eta berezitasun bat dugu, besteek ez dutena, eta da gertutasuna; gu gai gara eta gai izan behar dugu, gainera, gertutasunarekin jokatzeko eta hori abantaila handia da.

Entzule-kopurua ona da ezta? Bai, hala da. Eta batez ere informazioaren arloan. Jende askorentzat, ETB informazioa jasotzeko garrantzizko aukera da.

Azkenaldi honetan ere Epaitegi Nazionalean ikusi izan zaitugu, ETBk emandako zenbait berri direla-eta. Nola bizi duzu prozesu hori? Oso ezatsegina da, baina benetan ezatseginak Alderdi Popularra Espainiako Gobernuan egindako azken lau urteak izan ziren. Izenik ez duten gauzak egin zituzten. Gure irudi jakin bat zabaldu nahi zuten eta gure irudi horrek esan behar zuen ETArekin eta indarkeriarekin geundela, eta izan zituzten lan taldeak gure programazio osoa grabatzen, eta sospetxoso ikusten zuten gauza bakoitzaren inguruan iskanbila sortzen zuten. Eta ez zuten ezer errespe-



Argazkia: ARGIA

tatu. "Bertatik bertara" bezalako programa maite bat izorratu nahi izan zuten, haur programazioan ere sartu zuten muturra ... ez zen ezer libre geratu, baita Alavesen emanaldi bat ere! Nik uste dut alde itsusi baten islak izan zirela horiek denak eta Epaitegi Nazionaleko beste hainbeste. Dena zikindu eta deabrutu nahi izan zuten...

Bukatzeko, ezinbestekoa da niretzat zure familiar buruz hitz egitea. Orain dela gutxi hil zai-zue aita, Bixente, oso pertsona estimatua Hernanin. Plazan zenuten etxea hustu eta saldu egin duzue. Nola bizitzen da horrelako prozesu bat? Etxea saldu eta loturak galtzeko beldur hori bizi al duzu? Lotura ez dizu etxeak ematen, baizik eta familiak. Guk Hernanirekin izan dugun lotura asko aldatu zen aita Bilbora bizitzera joan zenean. Gu Bilbon bizita ere, Hernanira lotzen gintuen eta asko maite genuen pertsona aita zen. Baina behin Bilbora etorri zenean lotura hori aldatu egin zen, ez zen lehen bezalakoa. Baina, herriarekiko lotura eta maitasuna ez dizu etxeak ematen. Lotura ema-

ten dute lagunek eta -gauza bat aldatu ezin daitekeena- zure txikitako oroitzapenek, zuri txikitan gertatzen zaizkizun gauza guztiak toki eta egoera jakin bati lotuta daude, eta horiek ez dira ezabatzen.

Hernani, itxura aldetik behintzat, asko aldatu da eta bakoitzak bere herria bizi du. Nola da zure Hernani? Ni 18 urterekin joan nintzen Hernanitik eta nire oroitzapenak dira ordu artekoak. Lehen esan dudan bezala, loturak lagunekin eta oroitzapenekin izaten ditugu, baina egia da, dudarik gabe, toki haietako asko nire buruan bakarrik daudela: jolasean ibilitako toki asko aldatu egin dira, txikitako eszenario haiek ez daude, baina beste asko ez dira asko aldatu, Tilosetako paseoa, arkupeak, plaza... aldaketa arkitektoniko txiki ba-tzuk egin dituzte, baina beti bezala ikusten ditut.

Toki bat aukeratzekotan? Beti gustatu izan zait puente kolgantea, txikitan bizikletan asko ibiltzen ginelako inguru hartan.